

RCEME Bizkaia

# Aho barrunbeko eta faringeko minbizia Bizkaian. 2014.

(GNS O 3: C00-06-C09-14)

2018ko lehenengo hiruhilabetekoaren txostena

## Hitzaurrea

*2014. urtean aho barrunbeko eta faringeko 177 minbizi erregistratu ziren gizonezkoetan eta 50 emakumezkoetan; diagnostikaturiko tumoreen %4 eta %1,6 suposatu zuena, hurrenez-hurren.*

*Gutxienez hamarretik bederatzi kasu zelula-ekzkatadunen kartzinoma izan ziren. Dena den, zonalde hauetan ehun-linfoidean ere linfomak garatu daitezkeela kontuan hartu behar da.*

*Azken hamabost urteetan bi kokapen hauen intzidentziak beherakada esanguratsua eduki zuen gizonezkoen kasuan. Emakumezkoetan, ordea, gora egin zuen. Hilkortasunari dagokionez, antzeko aldaketak behatu ziren.*

*Estatuko minbiziaren bestelako populazio-erregistroekin alderatuz gero, Bizkaiak faringeko minbiziaren rankingean lehenengo postua bete zuen, bai emakume zein gizonezkoetan. Aho-barrunbeari dagokionez, emakumezkoetan hirugarren postuan zegoen eta gizonezkoetan, aldiz, bosgarrenean.*


*Kokapen honetan lehenengo minbizi-diagnostikoa izanez gero, ohikoak dira bigarren tumoreak edota ondorengoak gertatzea. Horrela, gure seriean, kasuen %16k bigarren tumore bat aurkeztu zuten. Hauen %16k hirugarren tumore bat garatu zuten eta %10k laugarren bat. Gainera, %8k aurretik diagnostikaturiko tumore bat zeukaten. Aho-barrunbeko eta faringeko aurretiko eta ondorengo tumoreak aintzat hartuz gero, %23,1 (404) laringeko tumoreak izan ziren, %9,7 (169) aho-barrunbe eta faringekoak, %9,5 (165) biriketakoak eta %8,6 (151) hestegorrikoak. Minbizi horiek guztiek arrisku faktore amankomunak dituzte, tabakoa edota alkohola, esaterako.*

# Aho-barrunbeko eta faringeko minbizia. Bizkaia

2014. urtean zehar aho-barrunbeko (GNS-O: C00-06) eta faringeko (GNS-O: C09-C14) 227 minbizi erregistratu ziren. Haueetatik 117 gizonetzkoetan diagnostikatu ziren, 100 aho-barrunbekoak (tasa gordina: 18,2/100 000) eta 77 faringekoak (tasa gordina: 14,0/100 000) izanik. Horrek sexu honetan eman ziren tumore guztien %4 suposatu zuen. Bestalde, emakumezkoetan diagnostikatu ziren 50 tumorak minbizi guztien %1,6 izan ziren. Horrela, 35 aho-barrunbekoak izan ziren (tasa gordina: 5,9/100 000) eta 15 faringekoak (tasa gordina: 2,5/100 000).

Aho-barrunbeko minbizien %74 eta faringekoen %84 gizonetzkoetan diagnostikatu ziren. Nahiz eta tumore horiek gizonetan ohikoagoak izan, gizonetzko/emakumezko ratioa denboran zehar aldatzen ari dela ikus daiteke. Modu honetan, aho-barrunbeko minbizian ratio hau seikoa bazen ere 2000. urtean, 2014. urtean hirura jaitsi zen. Faringeko minbiziari dagokionez, urte berdinetan zehar, hamahirutik bosterako beherapena eduki zuen. Diagnostikoaren momentuan batez besteko adina 70 urtekoa izan zen aho-barrunbeko minbizian (69 gizonetan eta 71 emakumeetan) eta 61 urtekoa faringeko minbizian (60 gizonetan eta 66 emakumeetan).


**Kasu kopurua eta tasa espezifiko adin-taldeka (x 100 000)**  
**Aho-barrunbeko eta faringeko minbizia. Bizkaia - 2014**




2000 eta 2014 urte artean bi minbizi hauen intzidentzian jaitsiera esanguratsua behatu zen gizonetzkoetan. Horrela, aho-barrunbeko minbiziaren intzidentziak %2,9ko jaitsiera izan zuen urtero (%95 KT: -3,7; -2,0) eta faringekoak % 2,4koa (%95 KT: -4,0; -0,7). Emakumeetan, ordea, aho-barrunbeko minbiziaren intzidentziak urtero % 3,0ko igoera esanguratsua jasan zuen. Faringeko minbiziaren intzidentziari dagokionez, estatistikoki esanguratsua izan ez arren, urteko %2,2ko gorakada behatu zen (%95 KT: -1,6; 6,3).

**Aho-barrunbeko eta faringeko minbiziaren intzidentziaren eboluzioa (Joinpoint),  
sexuaren arabera. C00-06; C09-C14. RCEME. Bizkaia 2000-2014**

[GNS-0-3: C00-C06] Aho-barrunbea



[GNS-0-3: C09-C14] Faringea




— Gizonak      — Emakumeak


\*UAP: Urteroko aldakuntza portzentajea

**Aho-barrunbeko eta faringeko minbiziaren estimatutako intzidentzia tasa (C00-C14),  
gizon eta emakumeetan. Europa 2012**

Gizonak



Emakumeak




Iturria: IARC. <http://eco.iarc.fr/eucan/Cancer.aspx?Cancer=1>.  
Europako populazioa erabiliaz estandarizaturiko tasak (x 100 000)


Hurrengo grafikoetan azaltzen dira IARCEk argitaraturiko azken datuak (*Cancer Incidence in Five Continents, Vol. XI, IARC 2017*). Ikus daitekeen moduan, EAEko gizonetako aho-barrunbeko minbiziaren intzidentziaren rankingean bosgarren postua betetzen dute, faringekoan, aldiz, lehenengoa. Emakumeei dagokionez, aho-barrunbeko minbizian hirugarren postuan daude eta faringekoan lehenengoak.

**Aho-barrunbeko eta faringeko minbizien intzidentzia tasa estandarizatuak \***. Estatuko 14 lurraldeko erregistroen konparaketa, Europako maximo eta minimoak kontuan hartuta.  
**Gizonak. 2008-2012**

**Gizonak. Aho-barrunbea (C00-C06)**



**Gizonak. Faringea (C09-C14)**




Iturria: *Cancer Incidence in Five Continents, VOL. XI (IARC 2017)*. <http://ci5.iarc.fr/CI5-XI/Default.aspx>


\* 100 000 biztanleko tasa estandarizatuak. Erreferentzia populazioa: munduko populazioa.

**Aho-barrunbeko eta faringeko minbizien intzidentzia tasa estandarizatuak \***. Estatuko 14 lurraldeko erregistroen konparaketa, Europako maximo eta minimoak kontuan hartuta.  
**Emakumeak. 2008-2012**

**Emakumeak. Aho-barrunbea (C00-C06)**



**Emakumeak. Faringea (C09-C14)**




Iturria: *Cancer Incidence in Five Continents, VOL. XI (IARC 2017)*. <http://ci5.iarc.fr/CI5-XI/Default.aspx>

\* 100 000 biztanleko tasa estandarizatuak. Erreferentzia populazioa: munduko populazioa.

## HILKORTASUNA

2014. urtean gizonezkoen hilkortasun tasa-gordina aho-barrunbeko eta faringeko minbizientzat, 5,5 eta 11,5 100 000 biztanleko izan zen, hurrenez hurren. Emakumeen kasuan, tasak 3,5 (aho-barrunbea) eta 4,4 (faringea) izan ziren. 2000 eta 2014 urteen artean gizonezkoetan aho-barrunbeko minbiziaren hilkortasunak urtero %2,9 egin zuen behera (%95 KT: -5,8; 0,2) eta faringearenak %2,4 (%95 KT: -4,0; -0,7), azken hau estatistikoki esanguratsua izan zen. Emakumeetan, aho-barrunbeko hilkortasuna modu esanguratsuan igo zen (urtero %6,3; %95 KT: 3,1; 9,7), eta faringearena, berriz, %2,2 (%95 KT:-1,6; 6,3), eta ez zen esanguratsua izan.

### Aho-barrunbe eta faringeko minbiziaren hilkortasunaren eboluzioa (Join Point), sexuaren arabera. C00-06; C09-C14. RCEME. Bizkaia. 2000-2014



## TUMOREAREN EZAUGARRIAK

Kokapen arruntena ahoa izan zen, hortzoiak, aho-zorua, ahosabaia eta zehaztu gabeko ahoko bestelako atalak barne hartuz. Ondorengoak mingaina eta ezpaina izan ziren. Orofaringeko eta sinu piriformeko minbizi kokapenak ohikoagoak izan ziren gizonezkoetan.

### Aho-barrunbeko eta faringeko minbizien intzidentzia, kokapen anatomikoa eta sexuaren arabera. RCEME. Bizkaia 2003-2014

GNS O	Kokapena	Gizonak		Emakumeak		Totala	
		N	%	N	%	N	%
C00	Ezpaina	265	11,9	67	10,7	332	11,6
C01-02	Mingaina	414	18,6	166	26,5	580	20,3
C03-06	Ahoa	541	24,3	196	31,3	737	25,8
C09	Amigdala	179	8,0	61	9,7	240	8,4
C10	Orofaringea	172	7,7	23	3,7	195	6,8
C11	Nasofaringea	161	7,2	49	7,8	210	7,4
C12	Sinu piriformea	233	10,5	23	3,7	256	9,0
C13	Hipofaringea	153	6,9	17	2,7	170	6,0
C14	Faringea-zehaztu gabe	109	4,9	24	3,8	133	4,7
<b>Guztira</b>		<b>2227</b>	<b>100</b>	<b>626</b>	<b>100</b>	<b>2853</b>	<b>100</b>

## MORFOLOGIA

Gutxienez, aho-barrunbeko eta faringeko minbizien hamarretik bederlatzi zelula-ezkatadunen neoplasiak izan ziren. Neoplasien %3 ez-Hodgkin linfomak izan ziren, %2 gizonetzkoetan eta %5 emakumezkoetan.

### Aho-barrunbeko eta faringeko minbiziaren morfologia, sexuaren arabera RCEME. Bizkaia 2003-2014


ICD O Morfologia	Gizonak		Emakumeak		Totala	
	N	%	N	%	N	%
800 - 800 Neoplasia BZG*	28	1,3	19	3,0	47	1,6
801 - 804 Neoplasia BZG epitelialak	50	2,3	14	2,2	64	2,2
805 - 808 Zelula-ezkatadunen neoplasiak	2057	92,6	528	83,9	2585	90,7
812 - 916; 973-975 Bestelako neoplasiak	43	1,9	32	5,1	75	2,6
959 - 959 Ez-Hodgkin linfomak	43	1,9	36	5,7	79	2,8
<b>Guztira</b>	<b>2221</b>	<b>100</b>	<b>629</b>	<b>100</b>	<b>2850</b>	<b>100</b>

\*BZG. bestela zehaztu gabe/ zehaztu gabea.

## BIZIRAUPENA

2000 eta 2012 urteen artean, bi sexuetan diagnostikoa egin eta 1, 3 eta 5 urtetara adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen-garbia (BGst) baxuagoa izan zen minbizia faringekoa zenean, estatistikoki esanguratsua izanik. Aho-barrunbeko minbiziaren BGst %43,2 eta %46,3 izan zen gizonetzko eta emakumeentzat, hurrenez hurren. Faringeko minbiziari dagokionez, BGst %29,2 izan zen gizonetzkoetan eta %36,0 emakumezkoetan.

### Biziraupen garbia, adinaren arabera estandarizatua, aho-barrunbeko eta faringeko minbiziaren diagnostikoa egin eta bat, hiru eta bost urtetara, sexua aintzat hartuta. RCEME. CAV 2000-2012



Iturria: Minbizitik bizirautea EAEn. 2000-2012.

BGst orokorrean, bi kokapenak barne hartzen dituena, ez zen hobekuntza esanguratsurik antzeman 2000-2004 urteetako diagnosialdia eta 2000-2012koa konparatuz gero. [Informazio osagarria](#)


## AHO-BARRUNBEKO ETA FARINGEKO MINBIZIEKIN ERLAZIONATUTAKO BESTELAKO TUMORE GAIZTOAK

1986 eta 2014 urte artean edozein minbizi mota zuten pertsonen artean, %8k (11 539/150 555) bigarren tumore bat garatu zuten. Horien %7k (849/11 539) hirugarren tumore bat izan zuten eta %7k laugarren bat (56/849). Denbora tarte berean 6624 pertsonak aho-barrunbeko eta faringeko minbizi bat gutxienez diagnostikatu zuten. Populazio honen %16k (1038/6624) bigarren tumore bat eduki zuen, hauen %16k hirugarren bat; eta, azkenik, hiru tumore azaldu zituztenen %10ek (17/163) laugarren tumore bat azaldu zuten. Bestalde, aho-barrunbe eta faringeko minbizia zuten kasuen %8k (532/6624) aurretik diagnostikaturiko tumore bat zeukaten.


Aho-barrunbeko eta laringeko aurretiko eta ondorengo tumoreak aintzat hartuz gero, %23,1 (404) laringeko tumoreak izan ziren, %9,7 (169) aho-barrunbe eta faringekoak, %9,5 (165) biriketakoak, %8,6 (151) hestegorrikoak eta %49,1 bestelakoak (857). Ondoko grafikoetan aho-barrunbeko eta faringeko minbizidun populazioak izandako aurretiko eta ondorengo zenbait minbiziren ehunekoak adierazi dira. Bestalde, tumore anizkoitzak zituzten pertsonen kopurua eta azken hauen lau kokapen konkreturen zenbatekoa ere irudikatu dira.

### Aho-barrunbeko eta faringeko minbizia. Bizkaia, 1986-2014

Aurretik izandako tumoreen %\*




Bigarren tumoreen eta ondorengoaren %\*



\*Aho-barrunbeko eta faringeko minbizia zuten paziente guztiak aintzat hartuta dagokion ehunekoak.

### Tumore anizkoizdun paziente kopurua



### Tumore anizkoitzen kopuru eta kokapena (ondorengoak+aurretikoak)

